

HITZAURRE GISA

Jose Luis Alvarez Enparantza

Berritua datorkigu BAT-SOZIOLINGUISTIKA ALDIZKARIA 15. zenbaki honetan, bai itxuraz zein edukinetaz. Neurria aldatu egin diogu eta maketa berritu, irakurketa hobetu asmoz. Atal berriak ere sortu ditugu, informazioa gehiagotu eta soziolinguistikaren alorreko ikerkuntzan sakondu asmoz. Kolaborazio berriak ere izango ditu aldizkariak. Hori guztia hasieran jarritako helburuari eutsi nahian, hots: soziolinguistika eta glotopolitika gaietan sakonduz, euskararen normalizazioan lanean ari diren guztien eguneroko praktikan baliagarria izango den korpus teoriko-zientifikoa eratzen joatea eta esperientzia praktikoa horren elkartrukaketarako aukera ahalbideratzea. Hala bedi!

Soziolinguistikari buruzko aldizkari batean (eta areago aldizkari hori Euskal Herrian mami-tzen bada), gisa da **Eire**-ko hizkuntz arazoaz arduratzea.

Hori dela-ta, EIRE du aztergai nagusizat ale honek.

Arazoaren aurkezpen gisa **Txillardeg**i-ren lerroak datoz. Irakurlerik gehienek dakitenez, oso kinka larrian dago gaelikera: bai Errepublikako eskualdeetan, bai Britainia Nagusi peko «Ulster» izenekoan. Nola uler 1937z geroztik Eireko «lehenengo hizkuntza» dena, desagertzeko arriskuan egotea?

Corpusaren alorrean gertatutako hutsak gogorazten ditu hemen: Aita Colmán Huallacháin-en goraberak, Joshua Fishman-enak berarenak; 1937an Dublingo Gobernuak hartutako hiru erabaki larriak, Mendebaldeko «Gaeltacht» txiroetako gorabeherak, gaelikerazko eskolak 1940z geroztik jasaten duen murrizketa, eta abar.

Ondoren Euskal Herriaren ezagutzaile eta adiskide den Pádraig Ó Maolcharaioibhek (Pat Rice) ematen digu bere ikusmoldea. 1950z geroztik, dinoskunez, Dublingo Gobernuak alde batera

utzi zituen bai Eireren batzea, bai Eire berriro **Gaelikeraz** osatzea. **Oso** berandu bada ere, orain ari bide da irlandar herria nazio-hizkuntzaren garrantziaz jabetzen; baina ez sinbolo gisa bakarrik. Bai Ulsterren (hamar «ikastola»), bai Errepublikan (beste 113), goranzko joera erreparatzen da. Herri-ekimenez sortutako FM-irratiak 11,5 orduz emititzen du egunean, gaelikera hutsez. Eta udazken honetan abiatuko bide da **Telebista kanale berria, gaelikera hutsez bizpahiru orduz egunean ihardutekotan.**

Sinn Féin-eko buruzagiaren irizpide militantearen ondoren, IJSL aldizkari ezagunean Eireri buruzko txostenak kudeatzea bere gain hartu zuen Pádraig Ó Riagáin-en lan zehatza dator. Beren burua gaelduntzat jotzen dutenak %13 baldin badira ere, eskolara doazen haurren kopuruak erakusten du garbiki zenbat etxetan mintzo diren gaelikeraz. Kopuru hori, betidanik nolazpait esateko, %5an dago aldakaitz. Eskolan nazio-hizkuntza ikasten omen duten gurasoak, ingelesez mintzo dira etxen. Are okerrago: kantaldi abertzaleetan beretan ere... ingelesez egiten dutelarik! Estatistiken irakurketak erakusten duenez, eskolatik irtetean jendea ingelesez bizi da. Hamaika ikerkuntza eginik ere, areago «ikertu-beharra» azpimarratzen du Ó Riagáinek. Baina badirudi gakoa garbi dagoela: gaur arte eiretarrek ez dute sekula hizkuntzaren arazoa seriotan hartu. Aski izan zaie hizkuntza folkloreak mailan ikustea; edo-ta Iraganeko ekarpen gisa. Gauzak orain hasi dira aldatzen. Agian!

Dossierra horretan utzita, aurkez ditzagun gainerakoak.

Gaiak sailean lan irakurgarri mordoxka bat dauka irakurleak.

Euskal Herriaz mintzo, bi artikulu funtsezko datoz ale honetan. **Kike Amonarriz**-ena bata, emakumeen jarrera eta jokabide aldaketa nabarmenari buruzkoa. Normalean azpimarratzen ez diren neurketa soziolinguistiko batzuk oinarritzat hartuz, oso adierazgarriak diren aldaketen berri ematen du. Orain dela urte batzuk egia bazen ere emakumeek errazago jotzen zutela erdarara gizasemeok baino, hori gaur egun ez da egia. Eta honek ondorio garrantzitsuak ditu (familia eta transmisioari dagokienez, adibidez). Euskararen erabilpena **kaletartu** egin da ere, nolazpait esateko; eta honek ere ondorio pisuak ditu euskararen berreskurapena gidatzerakoan. Bestetan Luis Nuñez soziologilariak esandakoen bidetik, euskaltzaleen pentsakera zaharkitua aldatzeko tenorea iritsi da; eta lelo funsgabe batzuk alde batera uztekoa.

HABE-ko Zinkunegiren eskutik eskaintzen zaigun «**Euskararen transmisioa**» lanak ere, bide bertsutik, geure irizpide zaharrak alde batera uztera bultzatu nahi gaitu. Euskararen jabeakuntza, gero eta gehiago, kultur bide formalez egiten da, eta gero eta gutxiago, kopuruei dagokienez, famili bide informalez. Hizkuntzaren jatorriasunari dagokionez, ondorio zuzenak ditu aldakuntza honek: interferentziak hor daude, gero eta bertago. Kalitatearen kezka gainean dugu; eta hor dugu apostu garrantzitsu bat. Baserriak bere gailentasuna galdu du. «*Gero eta gehiago dira -dio Zinkunegik- euskara prozesu kultural baten ondorioz ikasi dutenak*». Euskara euskalduna salbatuko badugu, estrategiak eta irakats teknikak aldatu beharko ditugu.

Olatz Osaren aurrekontuen azterketa zehatzak, beste ikuspuntu batetik, argitasun ederraz argitzen ditu gure gorabehera batzuk. Isil-isilka, instituzioetatik datorkigun laguntza murrizten ari da alor asko eta askotan. Zifrak eta grafikoak hor daude, lekuko.

Metodologia sailean, oso lan pedagogikoa eskaintzen digu **Iñaki Markok** herrietako plangintzak eta antzeko betebeharrak bideratzeko mementuan. Ez dago dudarik euskararen sustapenerako instituzioetan ari diren euskaltzaleek, laguntza gaitza jasoko dutela lerro horien irakurketaz.

Euskarak Elkarturik sailean, **Otaegi** jaunak, zoritxarrez gutxiegi ezagutzen den Enseiuakarean zer den azaltzen digu. Herri honetan Deustuko Unibertsitateak duen eta izan duen garrantzia ezaguturik, txalo baino gehiago merezi du «*Enseiuakarean*» euskal aldizkaria aurrera atera duen taldeak.

Iturri Bila sailean, **Odriozola** taldekideak, berriz, ohiturari eutsiz, ale honetan ere bere irakurketen berri eman digu. Oraingoan Agustin P. Iturriaga hernaniarrarena eskaintzen digu. Apaiz aurrerazale haren lanak berrirakurritz, ipuingile famatuaz gain halako soziolinguista bat ere izan genuela ageri da; eta, alde askotatik, profetikoa izan zela gure hernaniarra. Odriozolaren ardatza den euskaltzaletasun militanteak bultzaturik, oraindik ere «gurean nagusi dagoen filolokeria» salatzen du; bidenabar, gainera, orain dela mendebete t'erdi Iturriagak garbiki somatu zuena errepikatzen dugularik. Euskaltzaletasun «aseptiko» guztien kontra paraturik (honetan Paulo Iztuetarekin bat eginik), esaldi borobil hau plazaratzen digu: «*hizkuntz arazoa ez da Estatu-arazoa besterik*». Eta orain badakigu Iturriagak ere, beste modu batez, gauza berbera esaten zuela. Goiztar agertu gure hernaniarra...

Kronika sailean, amaitzeko, **Euskal Eskola Publikoari** buruzko lan bat. Beste bat, bai; baina arazoa orokorki begiratzen delarik. Garazi-Gasteiz Korrikaren berri ere ematen da horretan.

Eta hau esanda, jakina, eta xehetasun gehiago nahi izanez gero, soluzioa bakarra, baina abegarria zinez, ale honetan argitaratzen diren artikuluko mamitsuak arretaz irakurtzea.